

4. ERANSKINA

Ebaluazio
Protokoloa

SARRERA

Ebaluazio-protokolo hau gida bat da, irakasleei DOCENTIAZ programan erabilitako irizpideak, adierazleak eta pisuak ezagutzeko aukera ematen diena.

Hona hemen dimentsioen eta azpidimentsioen garrantzia:

DIMENTSIOA ETA GARRANTZIA (%)	AZPIDIMENTSIOA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
0. Irakaskuntza enkargua	(Faktore zuzentzaile gisa diardu)	
1. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena (%50)	1.1. Gaien irakaskuntza plangintza	25
	1.2. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena	25
2. Emaitzak (%20)	2.1. Arrakasta tasak	10
	2.2. Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta	10
3. Irakasleen garapen profesionala (%30) (*)	3.1. Irakaskuntza-lidergoa	6
	3.2. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak	10
	3.3. Prestakuntza	12
	3.4. Goi mailako hezkuntzan irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak	12
	3.5. Hedapena	6

(*)3. dimentsioan, irakasleen garapen profesionalari dagokionez, azpidimentsioen gehieneko balioen batura 46 putura heltzen den arren, gehieneko puntuazioa 30 puntuko izango da beti.

Azkeneko ebaluazioa honela sailkatuko da:

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 100 puntutik **50** puntu baino gutxiago lortzen dituen

Aldeko ebaluazioan lau kategoria sartzen dira:

- Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 50 puntu edo gehiago eta 70 puntu baino gutxiago lortzen dituen.
- Ebaluazio oso ona: ebaluazio oso ona izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 70 puntu edo gehiago eta 90 puntu baino gutxiago lortzen dituen.
- Ebaluazio gain-gainekoa: ebaluazio gain-gainekoa izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 90 puntu edo gehiago dituen ebaluazioa, eta ebaluazio bikaina lortzeko baldintzak betetzen ez dituen.
- Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 1., 2. eta 3. dimentsioetako bakoitzari dagokion puntuazioaren %90 lortzen duena, faktore zuzentzileaz biderkatu gabe.

EBALUAZIO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

1. Dimentsioa.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

1. *dimentsioaren helburua*: Irakaskuntza-plangintzaren kalitatea baloratzea, eta egiaztatzea irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena bat datorren tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin.

1.1. Irakasgaien irakaskuntza-plangintza:

Ikaslearen Gidak funtzio bikoitza betetzen du: irakasgaia aurkezteko euskarri nagusia da eta, ikasturtean zehar, irakasleentzako eta ikasleentzako ibilbide-orri gisa funtzionatzen du. EHUko irakasleek **ondo egituratutako gida osoak** eskaini behar dituzte, ikaskuntzari bermeeekin aurre egiteko behar den informazioa jasoko dutenak eta ikasleentzat **argi eta ulergarri** idatzita egongo direnak.

Ikaslearen Gida, plangintzarako tresna gisa, irakasleentzako hausnarketarako gunea ere bada. Espero da UPV/EHUko irakasleek beren irakasgaien ikasketa-planaren aurreikuspenak garatzea eta zehaztea, konpetentzia-mota guztien ikuspegi osoa emanez, ikaskuntzaren emaitzak zehaztuz, ikasleentzako dedikazioak zehaztasunez balioetsiz, etab. Horrela, gidak barne-koherentzia maila handia erakutsi behar du bere elementu nagusien artean, eta bereziki zaindu behar da jardueren, konpetentzien eta/edo ikaskuntzaren emaitzen, proposamen metodologikoen eta ebaluazio-irizpideen arteko lerrokadura.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak irakasle bakoitzaren espediente osoa ebaluatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Ikaslearen Gidak deialdiaren 3. oinarrian eta eskuliburuaren prozeduraren barruan dagokion atalean adierazitako baldintzak betetzea. Zehazki, irakasgai osoaren Ikaslearen Gida erantsi beharko da, emandako kredituen ehunekoa edozein dela ere (ikasleei emandako gida), hautatutako ikasgaiarena, pdf formatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean (gaztelaniaz edo euskaraz, ingelesez ere onartuko dira). Ikaslearen Gidaren zati bat aipatutako hirurak ez diren beste hizkuntza batean idatzita badago, zati horren itzulpena erantsiko da Ikaslearen Gidaren amaierako dokumentu gisa, eta, zalantzarik izanez gero, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearen balorazioaren mende geratuko da, behar bezala arrazoituta, itzultzaile adituen itzulpena eskatzea. Ikaslearen Gidan, gainera, irakaslearen identifikazioa jasoko da, hautatutako irakasgaiari egokituko zaio eta ebaluatu beharreko aldiaren emango den ikasturteari.

Ikaslearen Gidak eta ikaskuntza Jarduerak adieraziko dute zein ikasturteri dagozkion; ikasturtea, bi kasuetan, berbera izango da, eta deialdiaren barruko ikasturte bati egokituko zaio (2017/18-2021/22). Gainera, Ikaslearen Gida eta ikaskuntza Jarduera hizkuntza berean idatzita egongo dira; Ikaslearen Gidan eta ikaskuntza Jardueran adierazitako ikasturtean irakasgaia eman zuen hizkuntzarekin bat etorritik.

Ikasleek, irakasleentzako irakaskuntza jardunari buruzko iritzi-galdetegiaren bidez, baieztatu beharko dute hautatutako irakasgaiaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza egokia dela.

Irizpidea: Ikasle Gida egitaratua, osoa eta argia (Irizpidearen garrantzia: 25etik 10)

1. adierazlea: Irakasgaia eta irakaslea identifikatzeko datuak ematen ditu.

0-1-2	3	4-5
0.- Ez. 1-2.- Nahasia edo zenbait datu orokorrak, soilik: irakasgaiaren izena, kredituak, irakasleak.	Oinarrizko datuak: irakasgaiaren izena, titulazioa, kredituak, irakasgai mota eta irakasleak.	4-Datu osagarriren bat eman du. 5-Osoa: irakasgaiaren izena, ikastegia, saila, titulazioa, maila/moduloa, lauhilekoa, kreditu kopurua, taldeak eta irakasleak (nortzuk diren, bulegoa eta kontaktua).

2. adierazlea: Irakasgaia titulazioari dagokion atalean testuinguruan kokatzen du.

0-1-2	3	4-5
0.- Testuingururik ez. 1-2. Oso azalekoa.	Irakasgaia ondo kokatzen du maila/modulo/graduan eta ikasketa planaren beste irakasgaiekin erlazionatzen du.	4-Datu osagarriren bat eman du. 5-Osoa: lekua, irakasgaiekiko lotura, bete beharreko alde aurreko ezaguerak, profesional eremuarekiko lotura, amaierako profila ...

3. adierazlea: Lantzen diren gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunak edota ikasketa emaitzak.

0-1-2	3	4-5
0.- Ez dira azaltzen. 1-2.- Aipatzen dira, baina ez modu argi, sistematiko eta ordenatuan.	Irakasgaiaren gaitasun espezifikoak baino ez dira aipatzen.	4- Gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunen zerrenda edota ikasketa emaitzak. 5-Osoa: zerrendez aparte, informazio osagarria eskaintzen du (loturak, azalpenak...).

4. adierazlea: Gai bakoitzari buruzko eduki teorikoak eta praktikoak jasotzen ditu.

0-1-2	3	4-5
0.- Ez. 1-2.- Ikasgai zerrenda azalekoa eta eskasa.	Langaien zerrenda eta praktika motak zehazten dira.	Ikasgaiak eta praktikak xehe azaltzen dira, ikaslearentzat garrantzitsuak diren xehetasunak eman.

5. adierazlea: Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia azaltzen du eta irakaskuntza modalitate ezberdinek barne dituzten ikasketa jarduera motak zehazten ditu.

0-1-2	3	4-5
Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia ez du ia argitzen eta ez ditu zehazten irakaskuntza modalitate bakoitzean egingo diren ikasketa jarduera motak.	Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologiari buruzko nolabaiteko informazioa eskaintzen du baita irakaskuntza modalitate bakoitzean egingo diren ikasketa jarduera motei buruzkoa ere.	Xehe azaltzen du metodologia eta modalitate bakoitzean dauden ikaskuntza jarduera motak.

6. adierazlea: Ebaluazio sistemak irizpideak, tresnak eta horien ehunekoak jasotzen ditu.		
0-1-2	3	4-5
0.- Ebaluazio sistema ez da zehazten. 1-2. - Tresnak besterik ez ditu aipatzen.	Ebaluazio sistemak tresnak eta ehunekoak jasotzen ditu.	Ebaluazio sistemak irizpideak, tresnak eta ehunekoak jasotzen ditu.
7. adierazlea: Irakaskuntza motaren arabera ikasleek behar duten denbora zehazten duen kronograma bat du.		
0-1-2		3-4-5
0.- Ez		5.- Osoa.
8. adierazlea: Ikasketarako baliabideak zehazten ditu (bibliografia, interneteko helbideak...)		
0	3	5
Ez.	Bai.	Bai, behar bezala erreferentziatuak.
9. adierazlea: Argia eta ikasleek erraz ulertzeko modukoa da.		
0	1-2-3	4-5
Oso nahasia.	Hizkera tekniko eta pedagogikoa edo luze-labur desegokia duena (luzeegia edo laburregia).	Hizkera ulergarria ikasleentzat eta luze-labur egokia.
Irizpidea: *Ikasketa planari egokitutako Ikasle Gida (Irizpidearen garrantzia 25tik 5)		
10. adierazlea: Gidan jasotako gaitasunak edota ikasketa emaitzak bat datoz titulazioaren gaitasunekin. Ikastegiko Kalitate Batzordearen Txostena.		
0		5
Ez		Bai
11. adierazlea: Gidan jasotako gaitasunak edota ikasketa emaitzak bat datoz Irakaskuntza Gidan aurreikusitako gaitasunekin. Ikastegiko Kalitate Batzordeko Txostena.		
0		5
Ez		Bai
12. adierazlea: Ikasketa Planan irakaskuntza modalitateei dagokienez egiten diren aurreikuspenak betetzen ditu. Ikastegiko Kalitate Batzordearen Txostena.		
0		5
Ez		Bai

*Atal honetako amaierako emaitza 10., 11. eta 12. Adierazleen batez bestekoa izango da.

Irizpidea:Ikasle Gida berritzailea eta koherentea (Irizpidearen garrantzia 25etik 5)

13. adierazlea: Badago koherentzia gaitasunen edota ikasketa emaitzen, metodologiaren eta ebaluazioaren artean.

0	3	4-5
Ez.	Nolabaiteko koherentzia igartzen da zenbait elementuen artean.	Elementu guztien arteko koherentzia dago.

14. adierazlea: Planifikatzen diren lankidetzak eta banako jardueren banaketa orekatua da.

0	3	4-5
Horietako bat bakarrik sustatzen da.	Lankidetzak jardueraren bat planifikatzen da, baina modu isolatuan.	Banakako jarduerekin bateratutako talde-jarduerak planifikatzen dira.

15. adierazlea: Ebaluazio sistemak ikaskuntza gaitasunak edota ikasketa emaitzak ebaluatzen ditu.

0-1-2	3	4-5
Soilik ezagutzak.	Ezagutzak eta prozedura gaitasunak.	Ezagutzak, prozedura gaitasunak eta ikasketa emaitzak.

16. adierazlea: Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea proposatzen da, feedback egokia barne.

0-1-2	3	4-5
Amaierako ebaluazioa.	Ebaluazio jarraitua eta, batez ere, bildumazkoa proposatzen du.	Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea proposatzen du, feedback egokia barne.

Irizpidea:Ikasleen iritzia (Irizpidearen garrantzia 25etik 5)

17. adierazlea: Ikasleek duten iritzia buruzko inkestako **1. Itemari** emandako erantzunak, autotxostena egiteko aukeratu den ikasgaiari dagokionez ("**Programazioak etorkizunean izango dugun lanbidean behar ditugun gaitasunak garatzea du helburu**").

18. adierazlea: Ikasleek duten iritzia buruzko inkestako **2. Itemari** emandako erantzunak, autotxostena egiteko aukeratu den ikasgaiari dagokionez ("**Irakasgaiaren programak informazio nahikoa du irakasgaia ulertzeko**").

1.2. Irakasteko ete ikasteko prozesuaren garapena:

Irakaskuntzak bat etorri beharko luke gaian sustatu nahi diren gaitasunekin, eta, gainera, IKD ereduarekin bat etorri beharko luke, hau da, ikasleengan zentratutako irakaskuntza izan beharko luke, eta haien ikaskuntza autonomia eta lankidetzaren lana sustatu beharko lituzke. Emaitzak, berrikuspenak eta ebaluazioak jakinarazteko prozesuak ebaluazio-prozesuen funtsezko elementuak dira. Irakasleek ebaluazio-irizpideak ezarri eta jakinarazi behar dituzte, eta ikasleei haien aurrerapenen eta hobekuntza-arloen berri eman behar diete, ebaluazioa prestakuntzakoa eta etengabea izan dadin.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak irakasle bakoitzaren espediente osoa ebaluatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Ikaskuntza Jarduerak deialdiaren 3. oinarrian eta eskuliburuaren prozeduraren barruan dagokion atalean adierazitako baldintzak betetzea. Zehazki, aukeratutako ikasgaia ikasteko Ikaskuntza Jarduera bat erantsi beharko da, pdf formatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean (gaztelaniaz edo euskaraz, ingelesez ere onartuko dira). Ikaskuntza Jardueraren zati bat aipatutako hirurak ez diren beste hizkuntza batean idatzita badago, zati horren itzulpena egingo da, azken eranskin gisa; eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearen balorazioaren mende geratuko da, behar bezala arrazoituta, zalantzarik izanez gero, itzultzaile adituen itzulpena eskatzea.

Halaber, Ikaskuntza Jarduera ikasleei emandakoa izan behar da, eta ez ebaluazio-batzordeari zuzendutako dokumentu bat.

Idazteko hizkuntzak eta irakasteko ikasturte akademikoak bat etorri beharko dute Ikaslearen Gidan eta Ikaskuntza Jardueran.

Ikasleek, irakasleen irakaskuntza-jardunari buruzko iritzi-galdetegiaren bidez, baieztatu beharko dute hautatutako irakasgaiaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua egokia dela.

Irizpidea: Metodo koherentea, metodologia aktibo eta kooperatiboarekin bat egiten duena (IKD) (Irizpidearen garrantzia 25etik 10)		
19. adierazlea: Ikasketa jarduerak lankidetzaren taldeetan garatzen dira, berdinen arteko laguntza eta ikaskuntza egiten da, taldeko kideen inplikazioa ezaugarri izanik.		
0-1-2	3	4-5
Erantsitako jardueran ez da taldean garatuko den lan egoerarik aipatzen ezta taldeko eginkizunik ere. Salbuespen dira horrelakoak, ia anekdota hutsa.	Erantsitako jardueran talde lana nolabait antzematen da baina egoera isolatuak dira horrelakoak. Ez dute eragin handirik azken kalifikazioan.	Erantsitako jardueraren zati esanguratsu bat taldeka egiten da. Lankidetzaren azpimarratzen da. Jarduera horren emaitza eta talde lana ebaluatzen dira.

20. adierazlea: Ikasketa jardueren eskakizunek ikasleak ikaskuntza prozesua autorregulatzera, autonomiara eta ikasten ikastera bultzatzen dituzte.		
0-1-2	3	4-5
Prozesua itxia da. Ez dago tokirik autonomiarentzat. Ez dago aukerarik prozesua modu kritiko batean aztertzeko, autoebaluaziorako...	Batzuetan, ikasleak antolatu behar ditu emandako jardueraren lanak zehaztu eta garatzeko. Ez dago aukera espezifikorik autokritika egiteko.	Aukera dago prozedurak edo gaiak erabakitzeko, prozesuak diseinatzeko eta modu kritiko batean berraztertzeko.
21. adierazlea: Ikasketa jarduerak bat egiten dute irakasgaiak lortu nahi dituen ikaskuntza emaitzekin.		
0-1-2	3	4-5
Emandako jardueraren zereginak ez dira argi mugatzen. Eta, hala egiten denean, ez datoz bat irakasgaiak aurreikusten dituen gaitasunekin.	Ikaskuntza emaitzak oso zehaztuta agertzen ez badira ere, nolabaiteko koherentzia sumatzen da irakasgaiaren gaitasunen eta emandako jardueraren eginkizunen artean.	Harreman argia sumatzen da emandako jardueraren zereginen eta espresuki formulatutako ikaskuntza emaitzen artean.
22. adierazlea: Ikasketa jarduerak planteamendu metodologiko aktiboa dute.		
0-1-2	3	4-5
Badirudi irakas jarduera informazioa jasotzera eta haren azterketa pertsonalera mugatzen dela.	Apunteak jaso eta ikastea, ariketa eta zereginekin osatzen da. Praktikaren bat egiten da edo txostenen bat eskatzen da.	Emandako jardueran, ikasleak infomazioa bilatu, aztertu eta kritikoki arrazontzeko prozesuetan aktiboki inplikatu behar da.
23. adierazlea: Irakasleek galderak egiten dituzte, tresnak eskaini, trukerako aukerak eman, feedbacka eskaintzen dute.		
0-1-2	3	4-5
Irakasleen jarduna azalpen eginkizunari soilik lotuta dagoela dirudi. Ez da antzematen tutoretza jarduera aktiborik.	Irakasleek zereginak eta jarduerak proposatzen dituzte azalpenen osagarri gisa.	Aurkeztutako jardueran ikaskuntza erraztera zeharo bideratutako irakaskuntza jarduna antzematen da. Tutoretza sistema aktiboa agerian dago.
24. adierazlea: Irakasgaia emateko orduan, teoria eta praktika lantzen dira.		
0-1-2	3	4-5
Dimentsio praktikoa garrantzirik gabekoa dirudi, edo teoriatik zeharo bereizi eta desintegratuta aurkeztzen da.	Saio praktikoak saio teorikoen azalpenen osagarri dira.	Praktika eta teoria txandakatzen dira, elkarren osagarri dira, eta elkarri erantzuten diote. Saio praktikoek presentzia garrantzitsua dute.

Irizpidea: Ebaluazio koherentea, jarraitua eta hezitzailea (Irizpidearen garrantzia, 25etik 10)		
25. adierazlea: Aldez aurretik ezarritako eta ikasleei zehatz-mehatz jakinarazitako irizpide garbi batzuen arabera ebaluatzen da. Modu horretan, ebaluazioaren bidez ikaskuntza-prozesua bera bideratzen da.		
0-1-2	3	4-5
Ez dirudi ikasleei ebaluazio irizpideei buruzko informazio zehatza ematen zaienik.	Ebaluazio irizpide orokorrak aurkezten dira. Ikasle Gidan jasotako argibide laburretara jotzen da.	Irizpideak idatziz eskaintzen dira eta zehatz-mehatz aurkezten zaizkie ikasleei.
26. adierazlea: Ebaluazioaren zati handi bat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar lantzen da. Modu horretan, doikuntzak eta hobekuntzak egin daitezke.		
0-1-2	3	4-5
Ebaluazio osoa edo ia osoa (entregatzekoa, azterketak...) azken tartean edo ikasgaia amaitu eta gero kokatzen direla dirudi.	Zenbait entrega egiten dira ikasgaiaren garapenean zehar. Zereginetako batzuk aintzat hartzen dira irakasgaia ebaluatzerakoan.	Ebaluatu beharreko zereginak, entregatzekoak, praktikak ... irakasgaiaren garapenean zehar egiten eta zuzentzen dira.
27. adierazlea: Ikasleek beren lan akademikoaren kalitateari buruzko informazio zehatza eta egokia garaiz jasotzen dute, eta irakasleek hobetzeko jarraibideak ematen dizkiete.		
0-1-2	3	4-5
Ez da aipatzen, ezta deskribatzen ere, feedbacka. Deskribatzen dena hurbilago dago "emaitzak argitaratu eta erreklamazioak egin" eredutik.	Jardueraren bat zuzenduta itzultzen da. Oro har, iruzkintzen dira berraztertutako entegatzekoetan antzeman diren zailtasun eta gabezia nagusiak.	Emaitzen jakinarazpenaren kontakizunak feedback egoerak barne hartzen ditu, hobetzeko proposamen eta argibide espezifiko eta pertsonalizatuekin.
28. adierazlea: Badago koherentzia gaitasunen, metodologiaren, jardueren eta ebaluazioaren artean.		
0-1-2	3	4-5
Badirudi jarduerak ebaluatzeko irizpideek ez dutela lotura argirik gaitasunekin eta metodologiarekin.	Elementu guztiak ez daude lerrokaturik.	Konpetentzien, metodologiaren, jardueren eta ebaluazio-irizpideen arteko elkarrekotasuna zehazten da.
Irizpidea: Ikasleen iritzia (Irizpidearen garrantzia, 25etik 5)		
29. adierazlea: Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Irakaskuntza metodologia" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez.		
30. adierazlea: Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Irakaskuntza garapena" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez.		
31. adierazlea: Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Ikasleekiko elkarrekintza" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez.		
32. adierazlea: Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Ikasketen ebaluazioa" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez.		

2. DIMENTSIOA. - Emaidzak

2. *Dimentsioaren helburua*: Emaidza Akademikoak eta ikasleek irakaskuntza jarduerarekin duten asebetetze maila balioestea.

2.1. Arrakasta Tasak (Irizpidearen garrantzia 20tik 10):

Arrakasta-Tasen ebaluazioa ikastalde-ikasgai bakoitzari emandako puntuazioaren batez besteko aritmetikoaren bidez lortzen da. Kontuan hartu behar da ikastalde-ikasgai guztiak ez direla aintzat hartzen.

1. Irakasleak irakasgaiaren kredituen %75, gutxienez, eman duen irakasgai-ikastaldeak balioetsiko dira.
2. Irakasleak irakasgaiaren kredituen %75, gutxienez, eman duen irakasgai-ikastalderik egon ezean, kreditu gehien eman dituen taldea hautatuko da. Irakasgai-ikastalde bat baino gehiago badago kredituen protzentaje berak dutenak, horiek guztiak balioetsiko dira.

Analisia ikasturteka egingo da. Ikastalde-ikasgai bakoitzari emandako puntuazioa (**IIP**), honela kalkulatzen da:

$IIP=0$	baldin eta $vp > 50$ baino txikiago bada
$IIP=1/3*(vp-50)*fda$	baldin eta $50 \leq vp \leq 80$
$IIP=10$	baldin eta $vp > 80$ baino handiago bada

non **vp** irakaskuntza-egoeraren irakasgai-ikastalde arrakasta-tasa den eta **fda-k**, *irakasgaiaren zailtasunaren faktoreak*, 1,10 balioa hartzen duen baldin eta ikasleen %50ak irakasgaia oso zaila edo zaila dela aitortzen badute. Hala ez bada, irakasgaiaren zailtasunaren faktorearen balio 1 izango da.

2.2. Irakasleen Irakas-Jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta:

Irakasleen irakaskuntzari buruz ikasleek duten iritziaren emaitzak ebaluatzeko, irakaslearen laburpen-txosteneko 25. itemaren kalifikazioa haztatzen da egindako inkesten ehunekoaren arabera.

Irizpidea: Irakasleen asebetetze maila (Irizpidearen garrantzia, 20tik 10)

Adierazlea: Irakasleen iritzi inkestako 25. Itemean lortutako puntuazioa, egindako inkesten portzentajearen arabera haztatuta.

0 puntu	2 puntu * <i>fpe</i>	4 puntu * <i>fpe</i>	6 puntu * <i>fpe</i>	8 puntu * <i>fpe</i>	10 puntu * <i>fpe</i>
25. itema $\leq 2,5$	$2,5 < 25 \text{ itema} < 2,7$	$2,7 \leq 25 \text{ itema} < 3$	$3 \leq 25 \text{ itema} \leq 3,5$	$3,5 < 25 \text{ itema} \leq 4,0$	25 itema $> 4,0$

Irakaslearen laburpen-txosteneko **25. itemaren** balioa (Oro har, uste dut irakasle ona dela) honela kalkulatzen da: ebaluazio aldiaren inkestatutako irakaskuntza-egoera guztien 25. itemaren batez bestekoa, eta **fpe**, inkesten haztapen-faktorea, **pe** (inkestatu beharreko inkesten xede diren irakaskuntza-egoeren ehunekoa) balioaren arabera haztatzen dena, honela kalkulatzen da:

$fpe = 0$	baldin eta pe 0,5 baino txikiago bada (%50 baino gutxiago)
$fpe = 0,5 + (pe - 0,5) * 2$	baldin eta pe [0,5-0,75] artean badago, biak barne
$fpe = 1$	baldin eta pe 0,75 baino handiago bada

3. DIMENTSIOA. - Irakasleen garapen profesionala

3. *Dimentsioaren helburua:* UPV/EHUko irakasleek irakaskuntza berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako duten orientazio maila balioestea, bikaintasunezko irakaskuntza lortzearen alde.

3. Dimentsioan, azpidimentsioen gehieneko balioen batura 46 puntura heltzen den arren, gehieneko puntuazioa beti 30 puntukoa izango da. Jarraian, dimentsio honetako irizpideak ikus daitezke zehaztuta.

3.1 Irakaskuntza lidergoa

Ekintza	Puntuak emateko irizpideak (Gehienez 6 puntu)
UPV/EHUko erakunde edo batzordeetako arduradunak eta kideak, koordinatzaileak eta irakasleen lidergoari lotutako kargu akademiko guztiak ¹ .	<u>Zuzendaritza/koordinazioa:</u> 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko. <u>Lankidetzak:</u> Puntu 1 ekintza eta urte bakoitzeko.
Irakasgaiaren koordinatzailea ² .	Puntu 1 urte eta irakasgai bakoitzeko.
Goi hezkuntzako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuekin loturiko beste ekintza batzuk.	0,5 puntu ekintza eta urte bakoitzeko.

3.2. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoa:

Azpidimentsio honen puntuazioa lortzeko, **automatikoki** batuko dira irakasleari, ebaluatu beharreko aldiak, ikasleen lanak gainbegiratzeagatik, GAUR aplikazioan aitortutako kredituak. Honako taula honen arabera puntuatuko da.

Irizpidea: Ikasleen autonomia sustazea (Gehienez 10 puntu)					
Adirazlea: GAURren aitortutako kredituak.					
0 puntu	2 puntu	4 puntu	6 puntu	8 puntu	10 puntu
$krd=0$	$0 < krd < 2$	$2 \leq krd < 4$	$5 \leq krd < 7$	$7 \leq krd < 10$	$krd \geq 10$

Atal honetan aintzat hartzen dira:

- Zuzendutako Doktorego Tesiak.
- Karrera/Gradu/Masterreko amaierako lana.
- Practicumak.
- Borondatezko praktikak.

Ez dira aintzat hartuko:

- Berezko tituluak.
- Ofizialak ez diren masterrak.

¹ Kontuan hartuko dira, besteak beste, akademia antolakuntzako batzordeak, kalitate batzordeak, berdintasunarena, euskararena, praktikena, eta titulu/modulu/ikasturteko koordinatzailea.

² Bakarrik hartuko dira kontuan ikastegi bat baino gehieago edota hiru irakasle edo gehiago dituzten koordinazio ekintzak.

3.3 Prestakuntza

3.3.1 Jasotako prestakuntza

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
3.3.1.1. Graduen curriculum garapena.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko.
3.3.1.2. Irakaskuntza planifikazioaren hobekuntza.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko.
3.3.1.3. Goi mailako hezkuntzan irakaskuntza-ikaskuntzarako berrikuntza metodologikoak.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko.
3.3.1.4. Goi mailako hezkuntzara aplikatutako IKT.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko. (gehienez 1,5 puntu).
3.3.1.5. Eleaniztasuna	
"Terminologia Sareak Ehunduz"	Ikastaro osoa "Terminologia Sareak Ehunduz" (hiru mailak barne). 2 puntu <ul style="list-style-type: none"> • Lehenengo maila "materialen hizkuntza kalitatearen hobekuntza" 0,25 puntu • Bigarren maila "Terminoen glosarioa" 1 puntu • Hirugarren maila "Hiztegi terminologikoa" 0,75 puntu
Teaching your subject in English: Improving your Language and Teaching skills (TYSE).	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu).
Beste ikastaro batzuk.	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu).
3.3.1.6. Irakaskuntzarekin zerikusia duen beste prestakuntza.	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 1,5 puntu).

3.3.2 Emandako prestakuntza

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
3.3.2.1. Graduen curriculum garapena.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko.
3.3.2.2. Irakaskuntza planifikazioaren hobekuntza.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.2.3. Goi mailako hezkuntzan irakaskuntza-ikaskuntzarako berrikuntza metodologikoak.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.2.4. Goi mailako hezkuntzara aplikatutako IKT.	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko (gehienez 1,5 puntu).
3.3.2.5. Eleaniztasuna.	
Terminologia Sareak Ehunduz (TSE).	Puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko.
Teaching your subject in English: Improving your Language and Teaching skills (TYSE).	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu).
Beste ikastaro batzuk.	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu).
3.3.2.6. Irakaskuntzarekin zerikusia duen emandako beste prestakuntza.	0,5 puntu ikastaro bera errepikatuta irakasten bada. Gehienez 2 puntu. Puntu 1 irakasten diren ikastaroak ezberdinak badira.

3.4 Goi mailako irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak

3.4.1. Hezkuntza berrikuntza goi mailako hezkuntzan

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
Hezkuntza berrikuntzari buruzko proiektuetan parte hartzea, Campuz Bizia Lab, Justizia Soziala-Lab.	- Zuzendaritza: <ul style="list-style-type: none"> • 2 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa UPV/EHUkoa bada. • 2,5 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa kanpokoak bada. - Parte hartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Puntu 1 egiaztatutako urte bakoitzeko finantzaketa UPV/EHUkoa bada. • 1,5 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko finantzaketa kanpokoak bada.
Hezkuntza berrikuntzari buruzko kongresuetan aurkeztutako komunikazioak.	Puntu 1 komunikazio bakoitzeko.

3.4.2. Goi hezkuntzako irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak (ez dira kontuan hartuko kongresuetako aktak).

Argitalpena	Puntuak emateko irizpideak (Gehienez 6 puntu)
Indexatutako aldizkarietako artikulak.	Gehienez 2 puntu artikulak bakoitzeko.
Indexatuta ez dauden aldizkarietako artikulak.	Gehienez puntu 1 artikulak bakoitzeko.
Kanpoko ebaluazioa duten argitaletxeetan argitaratutako liburak.	Gehienez 5 puntu liburuko.
Kanpoko ebaluazioa ez duten argitaletxeetan argitaratutako liburak.	Gehienez 2,5 puntu liburuko.
Kanpoko ebaluazioa duten argitaletxeetan argitaratutako liburuen kapituluak.	Gehienez puntu 1 kapituluak.
Kanpoko ebaluazioa ez duten argitaletxeetan argitaratutako liburuen kapituluak.	Gehienez 0,5 puntu kapituluak.
Autoikaskuntzarako gune ireki batean argitaratutako irakaskuntzarako materiala.	Gehienez 2 puntu argitalpen bakoitzeko.

3.5 Hedapena

Ekintza	Puntuak emateko irizpideak (Gehienez 6 puntu)
Eskolak emateko astebeteko egonaldiak.	Puntu 1 aste bakoitzeko, gehienez 3 puntu.
Dibulgazio jarduerak (Zientziaren Astea, Zientzia Bizirik, tailerrak, ekintza praktikoak eta abar.).	Gehienez 3 puntu.
Irakaskuntza edo ezagutzaren hedatzearekin lotutako banakako edo taldekako sariak.	Gehienez 3 puntu.
Irakaskuntzarekin zerikusia duten noizbehinkako hitzaldiak.	Gehienez 0,5 puntu hitzaldi bakoitzeko.
Unibertsitate orientazio jardueretan parte hartzea eta bestelako kolaborazioetan parte hartzea.	Gehienez 0,5 puntu urte bakoitzeko.
Unibertsitate ikasketa ofizialetan zuzendutako edo gainbegiraturako bestelako lanak.	Gehienez 10 puntu, emandako kredituen arabera.